



HIRUGARREN JARDUNALDIAK. **RED denBBora SAREA**

“Lan-espazioen erabilera berria eta denboren kudeaketa”

Bilbo, 2016ko apirilaren 15a

Zenbait ondorio

Egitaraua

9.30 AGUR INSTITUZIONALA

9.45 1. HITZALDIA. ANNA MERCADE FERRANDO. Emakume, Enpresa eta Ekonomia Behatokiko Zuzendaria (ODEE). BARTZELONAKO Merkataritza Ganbera
Urruneko lanaren eta “bulegorik gabeko enplegu berrien” inpaktua genero ikuspegian oinarrituta.

10.15 2. HITZALDIA: MARINA ZAMBIANCHI. Arkitektoa. Bergamo. ITALIA
Zerbitzuen eta espazio publikoen erabileraren kontziliazioa: nola egin pertsona GUZTIAK elkarrekin bizitzeko plangintza.

Moderatzailea. INNOBASQUE. Berrikuntzaren Euskal Agentzia

10.45 MAHAI-INGURUA

11.30 Kafea / etenaldia

12.00 MAHAI-INGURUA ETA SOLASALDIA.
Red denBBora Sareko enpresen esperientziak gai honen inguruan.

Moderatzailea. EUSKALIT. Kudeaketa Aurreratua

13.30 JARDUNALDIAREN BUKAERA

Jarraian, laburpen modura, ideia eta ondorio nagusiak jasotzen dira:

Espazioaren erabilerak eta denboraren kudeaketa genero ikuspegian oinarrituta

Ezagutzaren gizartean, ezinbestekoa da langileak pozik, zoriontsu eta osasuntsu egotea, haien aldetik onena eman dezaten eta sortzaile eta berritzaile izan daitezen. Hala ere, nagusi den antolamendu-kultura ez da oso malgua eta eragin ezberdina izaten du emakume eta gizonengan. Zenbait ezaugarri:

- Gizartearen antolamenduak gizonaren bizi-zikloa du ardatz.
- Lan ordaindua dago bizitzaren erdigunean.
- Arrakastaren kontzeptuak baldintzatzen du karrera profesionala.
- Aisialdia lanaren eta gizarte harremanen zerbitzura dago.

Ondoz ondoko ekonomia eta finantza krisiek markatu dute “denbora” gure gizartean; diruak eta finantza-merkatuek bideratzen dituzte gure biziak eta makroekonomia mikroekonomiaren gainetik kokatzen da.

BPG adierazle ekonomikoa da, baina ez du pertsonen egoerari buruzko informaziorik biltzen, alegia, ez du pertsonak ondo, osasuntsu, zoriontsu ... dauden adierazten; IKTak gure bizitza iraultzen ari dira. Eredu honek ez die emakumeei onurarik eragiten; sarritan, haiek izaten baitira txirotze, isolatze prozesua pairatzen dutenak eta sustapenerako aukera gutxiago daukatenak.

Bartzelonako Merkataritza Ganberako Emakume, Enpresa eta Ekonomia Behatokiak egindako ikerketa baten arabera, prestakuntza kualifikatua duten emakumeen 1/3k lana uzten du zaintza-lanez arduratzeko; horrek, arlo ekonomikoko alderdi gisa hartuta, esan nahi du urtean 1.000 milioi euroko galera izaten dutela Kataluniako enpresek.

Bestalde, ama izandakoan enplegua utzi duten emakume kualifikatu asko lan-merkatuan sartzen dira berriro etxetik lan egiteko, lan-erantzukizunak alde batera utzi gabe, eta, hortaz,

lan produktibo zein erreproduktiboak osatutako lanaldiak luzatu egiten dira, bizi-kalitatean ondorio negatiboak eraginda.

Zentzu horretan, lan-espazioak eta espazio pertsonalak edota familiarrak bereizteko bide aparta da co-working delakoa.

Google bezalako enpresek mota guztietako zerbitzuak eskaintzen dizkiete euren langileei ... Baina, zein neurritan dira abantailatsuak? Pertsonak berentzako denbora behar dute; zinera joateko, antzerkia ikusteko, lagunekin edota senideekin egoteko, etab.

Presentzialtasuna: egituraz kanpo dagoen lana gutxiago ordaintzen da. Kristalezko sabaia delakoa saihesteko, ezinbestekoa da egitura barruan egotea. Gai honek oso eragin negatiboa dauka emakumeen kasuan.

Behar-beharrezkoa da enpresetan gardentasuna eta meritokrazia hobetzea.

Kataluniako enpresen %70ek ez dute emakumerik zuzendaritza-postuetan. Lehenetsun osoa izan behar du emakumeak modu orekatuan zuzendaritza taldeetako kide izatea bultzatzen duten politikak sustatzeak.

Behar-beharrezkoa da Gizarte Itun berria ezartzea, emakume eta gizonen artean gizarte osoaren eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak harmonizatuko dituen, benetan demokratikoa eta parekidea izango den gizarte eraikitzeko.

Zerbitzuen antolamenduan, denboraren politketan ... oinarritutako begirada.

Garrantzitsua da hirian bizi diren pertsonak kontuan izango dituen hiri-plangintza bat izatea. Horretarako, gizarte eragile ezberdinak barne hartuko dituzten tresna dinamiko eta parte-hartzaileez baliatu beharra dago (emakumeen, elkarteen aholkuak, boluntarioak ...), horiek baitira hirietan esku hartzen dutenak.

Bizi izateko hiri eta lurraldeak behar ditugu. Hiriko pertsona erabiltzaileen (ikasleak, langileak, turistak ...) interes ezberdinak uztartu behar ditugu, egunez zein gauez egiten diren denboraren erabilerean arabera antolatuta.

Denboraren politiketan, bizi-kalitatea kultur ondarearen eta biztanleen adinaren arabera neurtzen da.

Bergamoko lurralde gobernuaren eskualdeko Lege berria bizi-kalitatean zentratzen da eta Zerbitzuen Plana darabil hiria diseinatzeko oinarrizko tresna gisa.

LURRALDEKO GOBERNU PLANA: Berau osatzen duten hirigintza plan estrategiko guztiak uztartu eta koordinatzen ditu, honakoak besteak beste: mugikortasuna eta garraioa, hiriko denborak, merkataritza, espazio publikoen mantentzea, etab.

Ordutegien Planak hiriko denborekin antolamendua sustatzen du. Denboraren politikak praktikan jartzea.

Hiritarrek parte hartzeko foroak.

Zenbait praktika egoki:

- GAZTEENTZAKO ZERBITZU BERRIAK
- ESKOLARAKO IBILBIDE SEGURUAK
- ESPAZIO PUBLIKOETARAKO SARBIDEA HOBETZEA
- ORDUTEGI BERRIAK PARKEETAN
- ESPAZIO PUBLIKOAK ERABILTZEKO EGUTEGIA
- ...

Hiri erresilienteak... egungo erronkei egokituta.

Espazio malgutasuna enpresetan...

GAKOAK

- Malgutasun-beharrak langileengandik sortzen dira eta enpresek horiek egokitu, hausnartu, probatu, gauzatu ... egin behar dute.

- Garrantzitsua da langileek neurri horien berri edukitzea.
- Telelana neurri positiboa da malgutasunaren alternatiba gisa, praktikan lanaldiak murriztea eragin baitezake. Eragin positiboa izan dezake emakumeentzat, horiek baitira, gaur egun, murrizketak, eszedentziak eta abarrak gehien eskatzen dituztenak.
- Urruneko lanak, berez, kontziliazio neurri gisa, pertsonen isolamendua sustatzen du, sozializatzeko aukerak murriztuta.
- Zenbait lanpostutan (publikoarentzako arreta) ez da posible izaten urruneko lana aplikatzea.

ONURAK

- Ordu eta espazio malgutasunerako neurriek langileen motibazioa hobetzen dute.
- Bizi-kalitatea hobetzeaz gain, langileen asebetetze maila hobetzen dute, baita enpresaren irudia eta fidelizazioa ere, absentismoa saihesten dute, etab.

ERRONKAK

- Presentzialtasunaren kultura gaitzitzea.
- Helburu eta emaitzen araberako kudeaketara bideratzea.
- *Pertsonok oraindik ez gaude skype bidezko bilerak egitera ohituta.*
- *“Pertsona batzuentzako mahaia ez izatea trauma arrazoia izan da”.*
- Ordutegi eta espazio malgutasunerako neurriak martxan jartzearen produktibotasuna neurtzea.
- Atsedenaldiak errespetatzea.
- Bezeroak trebatzea.
- Mundu osoan lan egiten duten nazioarteko enpresei antolamendu-erronkak.
- Ezinbestekoa da oztopoak, beldurrak ... gaitzitzea, enpresek euren ekipoan konfiantza izatea.
- Enpresek erantzukidetasun, kontziliazio, sormen, elkarrizketa, espazio, denbora eta abarretarako eszenatoki berriak sortzen lagun dezakete, *betaurreko moreak* jantzita.

Inaugurazioa



Anna Mercaderen hitzaldia



Marina Zambianchiren hitzaldia



Mahai-ingurua



Ekitaldi-itxierako grafikoa



Publikoa

